

IDAIZLAN LUZEA | *Iritzi-artikulua* |

Maskotak

Gure lagunak? Etxeko errege-erreginak?




Gidoirako

Etxeko kide berezi eta maitagarria

- Jostailua, ez, konpromisoa. Jabea eta maskota: lotura sendoa elkarrekin
- Adinekoekin, bakarrik daudenekin: berba egin, tristura arindu... Maskota, psikologo handia
- Maskotarekin, oinez, korrika, parkean, mendian. Arnasa, ariketa fisikoa
- Herritar maskotadunak: erantzukizunean heziak
- Gaurko bizimodua, hiritar kalekumea. Maskotaduna, naturatik hurbilago

Etxean, oztopo; auzoan, arrisku

- Opari desegokia: haurrak aspertu eta txakurra kalean, mendian... utzi
- Elkarbizitza gatazkatsua: erasoak... txakurrak, aske eta zaunka: oinezko-txirrindulariak, ikaraz
- Ardura, gau eta egun, oporretan... Janaria, txertoak, ile-apaindegia...
- Txakur gorotzak nonahi: arrasto itsusi eta zikina
- Gehiegikeriak: maskota bitxiak (sugeak, armiarma, muskerak...). Lehiaketak



2014		Maskoten gastua (milioiak)		EUROPA 2015	
% GASTUA eurotan	txakurrak	katuak	Jatekoa	Osagarriak	Zerbitzuak
AEB	1.479	1.014	15.000	6.500	6.025
Erresuma Batua	1.311	1.123			
					Botikak
					2.475
					% 8,3



IDAZLAN LUZEA / 1

AUKERATUTAKO GAIA

MASKOTAK. GURE LAGUNAK? ETXEKO ERREGE-ERREGINAK?

Aztertzailea-
rentzat

250 hitz gutxienez

Aztertzailea-
rentzat

Hogeita batgarren mendeko gizakiaren bizimodua ikaragarri aldatu da azken hamarkadetan. Garai batean maskotak edukitzea luxutzat zegoen, hiritar aberatsenentzat naturatik hurbilago sentitzeko modua zen. Gaur egun, ordea, 1.101 milioi maskota daude munduan Ameriketako Estatu Batuak izanik buru. Hala ere, Europan konpainia-animalia ohikoenak katuak eta txakurrak diren bitartean, Estatu Batuetan arrainak edukitzeko joera nagusitzen da. Izan ere, txakurra edo katua izateak sekulako ardura dakar, eguneroko paseoa, gorotzak jasotzea, oporrak antolatzean maskotarengan ere pentsatzea... Honi guzti honi, mantenimenduak suposatzen duen gastua gehitu behar zaio, janaria, txertoak, ile-apaindegia, botikak, zerbitzuak... Guzti honek urtean milaka euroko gastua suposatzen du.

Punt.

Ort.

Ort.

Lot.

Kohs.

Erref.

H. Ord.
/Kohr.

Sint.

Z.G./Sint.
/ Ort.

Erref.

[Beraz,] argi geratzen da maskotak ez direla jostailuak edozeini oparitzeko, benetako kompromisoa eskatzen dute, [argi utziz herritar maskotadunak erantzunkizunean heziak direla.] Hala ere, honek ez du esan nahi maskotak jabeentzat karga (bat) direnik, guztik alderantzizkoa, maskotak jabearen bizimoduaren parte bilakatzen dira, hala elkarren artean oso lotura sendoa eraikiz. Izan ere, jabeak animalia gaizki dagoenean badakien einean, maskotek ere jabea triste dagoela senti dezakete, eta ahal duten guztia egiten dute hobeto sentiarazteko. Askotan esan ohi da maskotak psikologo handiak direla, eta baieztapen hau ez dago errealitatetik oso urrun.

Aztertzaiela- rentzat	Gainera, maskotek jabeen osasunean ere eragina dute. Lehenengo eta behin, txakurra	Aztertzaiela- rentzat
Ort.	izanez gero, egunero egunero bi aldiz gutxienez, atera behar da paseatzera, honela	Punt.
Erref.	gutxieneko ariketa fisikoa egitera <u>behartuz</u> . [Hori gutxi balitz,] jabe askok maite dute	Sint.
Erref.	beraien maskotekin denbora pasatzea, eta <u>honenbestez</u> [parkera, mendira, korrika eta	-
	abar jarduera egiten dituzte batera.] Batzuek agian, trikimailuren bat edo beste irakasten dizkiete: jesartzen, etzaten, eskua ematen, hildakoarena egiten... Beste batzuek jokoak ere irakasten dizkiete; makila jaurti eta jasotzetik, lasterketak egitera.	
	Beraz, argi eta garbi dago maskotak asko <u>maitez</u> eta arduratsu izanik, jabeen	Lex.
	bizimodua hoberrantz alda dezaketela, [hala familiaren kide bilakatuz eta betirako	Sint.
	jabeen oroimenean <u>geratuz</u> .]	



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LUZEA

Kalifikazioa: 5

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 9
-: 6, 11, 15, 20**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 1,5

Edukiari dagokionez, gutxienezkoa bete du. Hala ere, ideiak pilatuta eman ditu zenbaitetan (lehenengo paragrafoa) eta kosta egiten da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 1

Arazoak izan ditu ideiak ondo lotu eta mailakatzeko. Huts egin du progresio tematikoan. Lokailu gutxi erabili ditu, eta batzuetan era desegokian. Horren ondorioz, zenbait pasarte ilunak dira. Koherentzia eta kohesio falta da idazlan honen akats nagusia.

ZUZENTASUNA: 2,5

Sintaxia mailan egin ditu akats batzuk, baina ez dute, oro har, ulermena oztopatzen. Ortografian ere zenbait akats.